

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

153/2023 Foru Dekretua, ekainaren 30eko, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak izendatzen dira 2023-2027 legegintzaldirako

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak, 15. artikuluan, diputatu nagusiarentzat gordetzen du Aldundiaren sailak eta haien eskumen eremuak ezartzeko ahalmena, bai eta foru diputatuak izendatzeko eta bakoitzari kudeatu behar duen saila esleitzeko ahalmena ere, eta haien artetik diputatu nagusiorde bat edo gehiago eta Foru Gobernu Kontseiluko idazkari bat izendatzekoa.

Arau horrek, halaber, ahalmena ematen dio diputatu nagusiari araubidea ezartzeko foru diputatuak aldi baterako ordeztzeko, kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezindurik egonez gero edo absentzio edo errefusatzeko kasuetan.

Ekainaren 30eko foru dekretu baten bidez, Foru Aldundiaren sailak ezarri dira, 2023-2027 legegintzaldian bete behar dituzten erantzukizun- eta kudeaketa-arloak atxikita.

Hori guztia aintzat hartuta, diputatu nagusia naizen aldetik dauzkadan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ondoren aipatzen diren pertsonak foru diputatu izendatzea, aldundiaren zein sailen erantzukizuna esleitzen zaien adieraziz:

- Cristina González Calvar, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren arduradun.
- Itziar Gonzalo de Zuazo, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren arduradun.
- Jone Berriozabal Bóveda, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren arduradun.
- Saray Zárte Fernández de Landa, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Sailaren arduradun.
- Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Sailaren arduradun.
- Jon Nogales Prieto, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailaren arduradun.
- Anartz Gorrotxategi Elorriaga, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren arduradun.
- Amaia Barredo Díaz, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren arduradun.
- Ana Del Val Sancho, Kultura eta Kirol Sailaren arduradun.

Bigarrena. Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua lehenengo diputatu nagusiorde izendatzea, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua bigarren diputatu nagusiorde izendatzea.

Hirugarrena. Diputatu nagusia ordeztuari dagokionez, izendapen hurrenkeraren arabera lehentasun irizpideak Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolamenduari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 19. artikuluan adierazten diren ondorioak izango ditu.

Laugarrena. Diputatuak kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezindurik egonez gero edo absentzio edo errefusatzeko kasuetan haiek ordeztuko araubideari dagokionez, ondoko ordezte-ordenaren arabera dagokion diputatuak ordeztuko dituzte haien eginkizunak betetzeko:

– Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren arduraduna Kultura eta Kirol Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren arduraduna Ekonomiaren Garapenaren eta Berrikuntzaren Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren arduraduna Gizarte Politiken Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Ekonomiaren Garapenaren eta Berrikuntzaren Sailaren arduraduna Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Gizarte Politiken Sailaren arduraduna Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailaren arduraduna Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren arduraduna Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren arduraduna Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren arduradunak ordeztuko du.

– Kultura eta Kirol Sailaren arduraduna Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren arduradunak ordeztuko du.

Edozein kasutan, ordezte horiek ez dute ekarriko eskumenaren aldaketarik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua, Jone Berriozabal Bóveda andrea, Foru Gobernu Kontseiluko diputatu idazkari izendatzea. Ondorio horretarako, kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezindurik egonez gero, dekretu honen xedatze zatiaren laugarren atalean ezarritako ordezte-araubideari jarraituz dagokion foru diputatuak ordeztuko du.

Seigarrena. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua, Jone Berriozabal Bóveda andrea, Batzar Nagusietako Bozeramaileen Batzordean aldundia ordezkari izendatzea, diputatu nagusia bertaratzen ez den kasuetarako.

Zazpigarrena. 2023ko uztailaren 4an, 10:30ean, Foru Gobernu Kontseiluaren eratzeko bilkura egiteko deia egitea. Bilera horretan, izendatutako foru diputatuek zin edo promesa egingo dute beren karguari dagokion eginbeharrak zintzoki beteko dituztela, eta karguaz jabetuko dira.

Zortzigarrena. Foru dekretu honek ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 30a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE